

Ehun urte geroago, bizirik dauden jantziak





AURKIBIDEA

Iritzia Maite Asensio **3**

Erreportajea Musika guztiontzat gozamina denean **4-7**

Asteko Gaia Ehun urte geroago, Goikoetxea eta Tuduri elkartuta **8-16**

Hitzez Hitz Xabier Telleria **18-19**

Udako agenda **20-25**

Iritzia Julen Telleria **26**

Iritzia Irati Hartsuaga **27**

Bertsoa Haritz Mujika **28**

Olerkia Igor Estankona **29**



Azaleko irudia
Iñigo Royo

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

bai erabiltzaile eta
lana eskatzen

Bikam

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





MAITE ASENSIO
HEZITZAILEA

Gazte izango banintz zer?

Uda, aisialdia eta gazteak, hiru hitz horiekin sortu den anabasa ez da nolanahikoa izan. Pandemia sortu zenetik dabil jendearen eta agintarien ahotan sarriegi gazte hitza. Beraiek gazte izan zirenekoak ahaztuta balituzte bezala, ez dakit baino nik ez ditut ahaztu eta ondo gogoan ditut herriz herri, festaz festa pasatako gauak. Lagunekin, nerabezaroan edo gaztaroan, hain garrantzitsua den sozializazioaren bide nagusi izan dira herrietako festak eta parrandak. Baina, orain gazte direnek ezin dute horrela ibili eta neure buruari galdetzen diot sarri, gazte izango banintz zer egingo nukeen nik. Erantzuna badakit, eta zuk?

Egoera honek gauza asko azaleratu ditu, herriko denden garrantzia, zaintza, osasuna, komunitatea,... Baina nekez entzun dut inor, orain arte, aisialdiaz gozatzeko izan ditugun ohiturak zalantzan jartzen. Zein aisialdi eredu utzi edo erakutsi diegu gure gazteei? Beraiek asmatu al dute parranda edo botiltzarra? Beti esan izan ohi da, haurrek inguruan ikusten dutena egiten dutela, hau da, ereduak errepikatzen dituztela. Parke ondoko terrazak inguruko bankuak baino beteago egoten dira arratsaldeetan, haurren zaintza egiten duten bitartean lagunartean zerbait hartzeko aukera aprobe txatu nahian ibiltzen baitira helduak. Asteburuetan ere, edozein aitzakia izaten da ona lagunekin edo familiarekin elkartu eta zerbait hartzeko. Eredu horiek behin eta berriz errepikatzen dira haurren aurrean, baita nerabe eta gazteen aurrean ere. Guztia ospatzen dugu janari eta edariz inguratuta. Eta zer egiten dute gazteek, eredu horiek errepika-

tzea ez bada? Hala ere, guk emandako eredua zalantzan jartzea baino errazagoa izan da gazteak kritikatzea, arduragabeak direla esatea eta gure haserrea beraien aurka erabiltzea.

Baina zein aisialdi eskaintza dute nerabe eta gazteek gaur egun? Elkartzeko zituzten lokalak itxi zitzaizkien, adin horretan hain garrantzitsuak diren taldeak murriztu, taberna barrualdeak mugatu... Elkartzeko lekurik gabe, kalean, denon begien aurrean ibili dira

Nekez entzun dut inor, orain arte, aisialdiaz gozatzeko izan ditugun ohiturak zalantzan jartzen. Zein aisialdi eredu utzi edo erakutsi diegu gure gazteei?

edozein jokabide kritikatu zaielarik. Gazteak berez dira ekintzaileak, identitate propioa sortzen ari diren horretan ingurura ikasteko asmoz begiratzen dutenak. Eta bide horretan trabak jartzen ibiltzea baino aberasgarria izango da bidelagun izatea. Kritikak baino animoak behar dituzte, eta laguntza, beraien bizitza gurea baino gehiago astindu baitu pandemiak. Itzuliko dira garai hobeak noski, baina beste modu batera bizitzen ikas dezagun guztiok, berriz ere, mendian, festetan, lokaletan... lehen bezala baina desberdin elkartzeko.

ANAKRUXA, MUSIKAK ADINIK EZ DUENEAN

Loatzo musika eskolako ikasle helduek osatutako taldea da Anakruxa, eta gaur egun kide direnek, bi urte daramatzate elkarrekin talde egonkor gisa. Pandemiak bete-betean taldearen jardunean eragin duen arren, aurreko uztailaren 14an Villabonako Gurea aretoan aritu ziren kontzertua eskaintzen. Gehiagorako gogoz daude taldekideak.

Jon Miranda

Loatzo musika eskolako talde finkoetako bat da Anakruxa. Duela hamar urte inguru sortu zuten eskolan ibiltzen ziren ikasle helduenek eta kideetan aldaketak egon diren arren, Anakruxak etenik gabe jarraitu du bere ibilbidea. Ixak Oiartzabal irakasle eta taldekidearen ustez, «zaila» da musika eskolan talde batek hainbesteko egonkortasuna lortzea: «Egokorrak gara, ordea, bai irakasleak eta are gehiago ikasleak; agertutako borondate horri esker iraun du taldeak».

Nieves Sobrado billabonatarra hasiera-hasieratik aritu da taldean. «Loatzon ibiltzen ginen ikasle helduok kantu bat sortzea erabaki genuen, gurekin hainbesteko pazientzia zuen irakasleari eskaintzeko. Gauza batek bestea ekarri zuen eta taldea sortu genuen. Anakruxa izena jarri genion, beti behar baino beranduago sartzen garelako hurrengo konpasean», dio umorez. Gitarra jo izan du Sobradok eta gaur egun baxu elektrikoa eta ahotsa jartzen ditu taldean.

Esperientzia gehien duen taldekidea da Sobrado eta Anakruxan berriena, berriz, Kristina Ezkurdia zizurkildarra. «Duela pare bat urte hasi nintzen Loatzon eskusoinua ikasten. Aurten ikasturtea hasita zegoela gonbidatu ninduten taldera. Bakarrik baino nahiago dut taldean eta oso baliagarria zait konfiantza hartze-

ko», esan du Ezkurdiak. Behatzak mugitu eta burua despejatuta edukitzeko musika bezalakorik ez dagoela esan du soinu jotzaileak eta uste horrekin bat dator Joxean Garrido ibartarra. Biolina jotzen du taldean: «Bost urte daramatzat musika eskolan eta bi urte Anakruxan. Eguneroko tentsioak askatzeko primeran datorkit taldean aritzea. Gozamina da jende honekin astero biltzea».

Irurako kulturuneko aretoan egiten dituzte ordubeteko entseguak astean behin. «Aurreko ikasturtearen zati handiena telematikoki eman genuen eta aurten aurrez aurre elkarrekin entseatzeko aukera izan dugu. Aretoak distantziak mantentzeko eta aireztatzea bermatzeko aukera eman digu», esan du irakasleak.

Oiartzabal aritzen da, hain zuzen, taldearentzako kantuen moldaketak egiten. Lan hori eskertu dio Jon Arregi tolosarrak, taldean gitarra elektrikoarekin eta kantuan ibiltzen den kideak. Anakruxako ahots nagusia da Arregi, baina kantuan laguntzen diote Sobradok eta baita Eugenio Batalla zizurkildarrak ere. Saxofoi altua jotzen du Batallak: «Lauzpabost urte daramat musika eskolan eta hirugarren urtean dagoeneko hasi nintzen Anakruxan parte hartzen. Oso gustura nabil». Iritzi berekoak dira Luisi Arregi irurarra eta Pili Goikoetxeandia ibartarra. Pianoarekin eta txistuare-



kin hartzen dute parte Anakruxa taldean, hurrenez hurren.

Ohiko taldekideekin batera, Loatzo musika eskolan aritzen diren edota aritu izan diren musikariak ere gonbidatzen dituzte haiekin aritzera. «Anakruxa esperimentuak egiteko erabiltzen dugu, eta adibidez, rock talde baten haizezko sekzio bezala aritzeko Loatzoko saxofoiko ikasleak gonbidatu izan ditugu gurekin aritzera», esan du Oiartzabalek. Duela gutxi Villabonan eskainitako emanaldirako gonbidatu zituzten,

adibidez, Izadi Lasa irurarra saxofoiarekin eta Carmen Chivite billabonatarra perkusioarekin

Errepertorio zabala dute prest taldekideek eta hura defendatzeko gogoz daude, nahiz eta pandemiagatik nahi baino aukera gutxiago izan emanaldiak eskaintzeko. «Garaikideak diren kantuak, rock kutsua daukaten abestiak eta euskarazkoak ere eskaintzen ditugu, Loatzo musika eskolaren ezaugarrietako bat baita hori», esan du Oiartzabalek. Umore ona eta ondo pasatzeko gogoak egiten du Anakruxa.

ATARIAn jarrita Goletti
eta Urola Kostako
Hitzza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



DUDIK-P, MUSIKA GOZATZEKO DA

Amasa-Villabona eta Zizurkilgo sei lagunek osatzen dute Dudik-p; adin batekin musika ikasten hasi, Anakruxa taldean beste musikoeekin batera nola jotzen den probatu eta bakarkako ibilbidea abiatu zuten duela hiru urte; ez zuten honaino iristea espero eta ez dute askoz urrutirago iristeko irrikarik, baina musikan pausoak ematen ari dira etengabe

Jon Miranda

Ahalduntzeko bide eman die musikak Dudik-p taldeko kideei. 2018. urte inguruan erabaki zuten taldekideek elkartu eta beren bide propioa abiatzea. «Bakarrik hegaldatu nahi genuela erabaki genuen». Aurretik, ordea, Loatzo musika eskolaren abaroan ibilitakoak dira kide guztiak eta talde batean elkarrekin jotzea probatutakoak, Anakruxan urte luzeetan eta tarte labur batean A Contratiempo taldean. «Asko ikasi dugu; izan ere, tal-

dean aritzeak etengabe negoziatzea eskatzen dizu. Pazientzia lantzen edota elkarrekin gauzak aurrera ateratzen ikasi dugu. Pertsonalki hazteko balio izan digu», aipatu du Marijo Mendibil taldekideak.

Baxua jo eta kantatu egiten du Mendibilek Dudik-p taldean eta bere kideek «pastelaren ginga» bezala definitzen dute. Horrela nabarmendu du baterian aritzen den Carmen Chivite billabonatarrak: «Marijok du kultura musikal handiena eta belarririk onena. Besteek huts

non egiten dugun esaten digu». Behin adin batera iritsita hasi zen Chivite Loatzo musika eskolan, gainerako taldekideak bezala. «Seme-alabak apuntatzera joandakoan konturatu nintzen, haiek ez, nik ikasi nahi nuela musika. Pretentsio handirik gabe hasi eta ez nuen sekula imajinatuko honaino iritsiko nintzenik».

Lotsa gainditu behar izan dutela aipatu du Mertxe Mendizabal zizurkildarrak. Gitarra akustikoa jotzen du Dudik-p taldean: «Gogoan dut nola ibiltzen ginen ezkutuan, gitarra bizkarrean generamala, ikusi ez gintzaten. Inork galdetuz gero, gitarra semeena zela esaten genien». Mendizabalentzat musika munduan urratsak ematea ahalduntzeko, eta batez ere, lagunarte bat osatzeko modua izan da. «Gure artean oso harreman ona dugu eta musikaz aparteko planak egiten ditugu elkarrekin. Urtean behintzat pare bat aldiz asteburu pasa tematikoak egiten ditugu», esan du taldekideak.

Olatz Barandiaran zizurkildarra biolinarekin aritzen da taldean eta hark ere ibilbide bera egin du musika eskolan. «Lan munduan egonkortuta eta seme-alabak hazita hasi nintzen Loatzon. Lehenago ere musika gustatzen zitzaidan eta probatu egin nahi nuen. Behin probatuta argi geratu zait musikarako ez dagoela adinik». Aran Mujika izan du irakasle musika eskolan eta berekin oso eskertuta agertu da Barandiaran. Gainerako taldekideek ere gogoan izan dituzte euren irakasleak, Iñaki Salvador eta Ixak Oiartzabal, adibidez. «Asko lagundu digute, pazientzia izugarria izan dute gurekin eta beraiek animatu gaituzte, hein handi batean, saltoa ematera».

Askotariko erreperitorioa

Dudik-p taldekoek irakasle izandako lagunak kolaborazioak izan dituzte zuzeneko zenbait emanalditan. Gainerakoan, eszenaratzea zaintzen dutela aipatu du Pilu Garmendia gitarra elektrikoarekin aritzen den taldekideak. «Jendea harrituta geratzen da gurekin. Oholtza gainean sei emakume ikusten dituztenean abesbatzako kantuak kantatuko ditugula iruditzen

zaie eta ahoa bete hortz geratzen dira gure erreperitorioa ikusita», dio Garmendiak. Kantu ezagunak eta erraz identifikatzen direnak aukeratzen dituztela aipatu dute taldekide guztiek eta ez zaiela aukeraketa egitea gehiegi kostatzen: «Norberak gustuko duen kantuen proposamena egin eta ondoren taldean probatzen dugu. Badira kantu batzuk trabeska geratzen zaizkigunak eta alboratu behar izaten ditugunak, baina gainontzekoak behin eta berriro entseatuta aurrera ateratzen ditugu». Gutxienez astean behin biltzen dira Amasako kultur etxean entseatzeko eta kantuen moldaketak Maialen Mujika billabonatarrek egiten ditu. Bera da taldeko gazteena eta zuzendari lanak egiten dituen.

Hogei kantutik gorako erreperitorioa dute prestatuta eta orain lantzen ari diren kantuen artean denetarik topa daiteke. Besteak beste, Creedence, Luz Casal, Nancy Sinatra, Tina Turner, Metallica, For non Blondes, Talco, Izaro, ETS edota Exkixuren kantuen bertsioak egiten dituzte. «Ez da erraza gure estiloa definitzea, folk-rocka esaten diogu guk, baina denetarik jorratzen dugu eta hizkuntza ezberdinetan gainera; kantuekin eroso sentitzea eta gozatzea da kontua».

Kantu ezagunen moldaketak egiten dituzte, baina orain arte ez dute abesti berririk sortu. Dauzkaten mugetz kontziente direla dio Mendizabalek: «Gu ez gara profesionalak, hemen gabiltza musikaz gozatu nahi dugulako. Emanaldietan tentsio puntua izaten dugu baina ez dugu gaizki pasa nahi. Eroso sentitu nahi dugu oholtza gainean, eta horretarako, adibidez, atrila eramaten dugu. Dagoeneko ez gara lotsatzen».


Pandemiak derrigor eragin duen etenaren ostean berriro ere martxan dira Dudik-p taldekoak eta berriki Arroan eta Iruran eskaini dituzte emanaldiak. «Prest gaude beste lekuetan jotzeko ere, taberna barruetan bezala kanpoko espazioetan. Vermutharen orduko emanaldiak izaten dira gehien gustatzen zaizkigunak, baina edozein egoerataro moldatzen gara. Musikaz gozatzea eta gozaraztea da gure asmoa, dudarik gabe».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza. Tolosako Casa Julian jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Interesatuak bidali zuen curriculumak

'lan eskaintza' erreferentziarekin helbide honetara: casajulian1951@gmail.com.

GOIKOETXEA BASERRIAREN ALTXORRAK



Albizturko Goikoetxea baserrian duela 160 bat urteko emakumeen jantziak aurkitu dituzte kutxa batean gordeta; jantzi horiek Elena Tuduri tolosarrak, duela 100 urte, bere argazki kamerarekin argazkitan jaso zituen euskal jantzien gaineko ikerketa ilustratzeko

Eneritz Maiz Etxarri

Elena Tudurik (Tolosa, 1893) duela 100 urte egin zuen ikerketa lan bati lotuta egin da aurkikuntza Albizturko Goikoetxea baserrian. 100 urtetik gora dituzten jantziak aurkitu dira baserriko kutxa batean ondo gordeta. Tuduriren ikerketa duela lau urte argitaratu zuen bere biloba Emilio Latorrek, eta liburuko 75. orriko argazkiak eraman ditu Albizturrera Emilio Latorre bera, Ane Albisu jantzien ikertzailea eta Mikel Prieto historialaria. Eta Goikoetxea baserriko atea Gotzon Uria Laskibarrek ireki die, bertako oinordekoak. Elena Tudurik duela 100 urte Albizturrera egin zuen bidaiari, Euskal Herriko jantzien gaineko ikerketa egi-

ten ari zen, eta Goikoetxea baserriko argazkian ateratzen dena *aldeana rica* moduan aurkezten du.

Gotzon Uria Laskibar da Goikoetxea baserriko oinordekoetako bat. Bere familiaren aurreko belaunaldiez galdetuta, «ezer gutxi nekien», aitortu du. Jaio-tzez azkoitiarra da Uria, eta ama zuen Albizturko Goikoetxea baserrian jaioa. Hala ere, baserrira asko joaten zela kontatu du. «Eskolara hasi bitartean ni baserrian hazitakoa naiz, eta euskara bera ere Albizturkoa dut gehienbat», dio. Eta eskolara hasi eta gero ere, «asteburuetan beti baserrian egoten nintzen».

Goikoetxea baserriko belaunaldietan atzera egin



Albizturren kokatutako Goikoetxea baserria. **E. MAIZ**

behar da aurkitu diren emakumeen jantzi horien berri izateko. «Nire amaren aitona, hau da, nire birraitona izan omen zen diputatu», argitu du. «Bere bidaiak Erromara edo Parisera egiten omen zituen», eta «nire ama gogoratzen zen umetan nola karro handi batekin etortzen ziren bere aitonaren bila, batera edo bestera eramateko», azaltzen du Uriak. Jose Laskibar zen bere birraitona.

Horretaz aparte, inoiz ez diotela garrantzia gehiagorik eman adierazi du Uriak. «Beti horrela ezagutu dut baserria». Eta gaineratzen du: «Oraingoaren aldean, gainera, askoz ere hobeto». Orain, kontu guxtiago egin zaiola kontatu du, eta gogoan du: «Nire

ama etortzen zenean, beti, belauniko jarri eta argizaria eman eta mendafina pasa eta... Astero-astero egiten zuten, eta uda iristen zenean koltxoiak askatu, eta artilea atera-eta aritzen ziren».

Ezohiko baserria

Uriak amona eta izeba ezagutu zituen baserrian bizitzen, eta Uriaren familiak oso maiz egiten zuen baserriako bidea. Ez da, ordea, ohiko baserria. Egongelara sartu eta piano bat dago, besaulki dotoreak aurrez aurre dituela. Horrez gain, ikasketadun jendea bizi izan dela erakusten dute hormetan zintzilik dauden tituludun koadroek. Irakasle, albaitari edota musikariak bizitu izan dira Goikoetxea baserrian.

Aberastasunen gainean ezer ez zela hitz egiten familian adierazi du Uriak, eta amari ez ziola sekula entzun baserritar aberatsen konturik. Bai kontatu du, lau-bost baserri errentan zituztela, eta bere amak esan izan ziola nola San Tomas egunaren bueltan errenta ordaintzera joaten zirela maizterrak baserri-
ra. Mahai handiak zabaldu, eta otordu eder bat ematen zietela guztiei. Aldiz, maizterrek, kapoiekin-eta ordaintzen zieten errenta, eta hurrengo egunean, etxeko gazteak, Tolosako azokara joaten zirela kapoia-eta saltzera dirua izateko.

Aitortu du, falta, ezer ez zitzaizela falta izan bere aurreko belaunaldiei. Horrez gain, «gure ama-eta bost anai-arreba izan ziren, eta hiruk ikasketak egin zituzten. Albaitari bata, eta beste biak irakasle izan ziren. Aitona ere musikako ikasketak egina zen, eta hor daude paretan nonbait tituluak», esan du. Ikasketak eginiko jendea zen Laskibar familia, eta Uriak aipatu duenez, txekor eta txerriren batzuk hazten ikusi baditu ere, berak ez du sekula baserritik bizitzen inor ezagutu. «Nire ama umea zenean baserri moduan funtzionatzen zuen, baina morroia zuten bere gela eta guzti», dio. Eta zalantzekin gaineratu du, «nire amonak edo birramonak ere, neskamea izaten omen zuen hura ere bere gelarekin».

Ez ziren jakitun

Gaur egungo familia ez da jakitun izan baserrian zuten balioarekin. Kutxa eta armairu asko izan badirela

bai, baina arropa konturik ez diotela inori entzun esan du Uriak. Duela lau urte arte izeba bertan bizi izan da: «Oraindik egutegia hor dago 2017ko martxoan».

Kuxkuxeroa izan dela aitortu du, eta etxe handia ikustean, denak ireki eta ikusten ibilia dela. Egongelaren alboko gelako kutxan arropak ikusiak zituen, baina ez zuen horrelakorik pentsatu. «Arropa hauen aurretik liburu bilduma izan zen, eta haiek aldundiak eraman zituen», argitu du.

Mikel Prieto historialariaren bidez iritsi zitzaion arropen albistea, eta argazki bat tarteko izan zen. Argazkiko jantzia ikustean, «ezaguna egin zitzaidan», dio. Orduan, arropa horiek ateratzen hasi zen, eta «uste dut Mikel, arropa horiek hemen daudela» esanaz deitu zion historialariari. Orduan lotu zen guztia. Mikel Prieto historialaria Albizturko bere ikerketa lanak tarteko, aurretik egona zen Goikoetxea baserrian. Argazkia ikertzean, «Albiztur jartzen du, piano hanka hori... esan zidan, eta etorri ginen, konparatu genuen, eta bera da», eta «atzeko koadroek ere oraindik kointziditu egiten dute». Orduan hasi zen ikerketa, eta 100 urte atzera egin eta lotura guztia egin zuten iazko udan.

Orduan elkartu ziren Latorre, Prieto eta Albisu Goikoetxea baserrian, eta artikulua bat argitaratu dute orain: *Reencuentro con Elena Tuduri en la casa Goikoetxea cien años después*. Argazkia atera zela 100 urte bete ziren iaz, beraz, jantziek urte gehiago dituztela aurreikusten da. Ane Albisu ikerlaria aritu da azterketa lana egiten. Esaterako, jaka bat aurkitu dute eta Albisuk XIX. mende hasieran kokatu du; beste jantzi batzuk XIX. mendearen bigarren zatikoak direla, eta beste batzuk XX. mende hasierakoak azaldu du Uriak. Orain, balioa hartu duten arropak dira. «Nik ez nion garrantzirik eman; arropa zahar batzuk daude txukun-txukun jasota», pentsatu zuen Uriak irekitzean. Amari eta izebei ere ez ziela inoiz arretarik deitu aitortu du. Baina, «norbaitek gorde zituen gorde behar ziren moduan», azpimarratu du. Ilunpean, tenperatura onean eta erramu hosto artean egon dira. «Hainbeste urte pasata egoteko, nahikoa kalitate onean daudela esan du Anek», gaineratzen du oinordekoak.



Dohaintzan eman dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari jantziak, «berriz hemen gordez gero, badakit, denbora gutxi barru pipiak jan edo usteldu, eta galdu egingo liratekeela». Nahiago izan du Goikoetxearen izenean, norbaitek ardura hartu eta ondo mantenduta izatea. Arropa dezente eraman zituztela, eta azken finean, zaintzea nahi du. «Anek izugarritzko balioa eman zien, eta pozten naiz».

Albizturren jende askok ezer ez dakielakoan dago Uriak. Eta bestetik, oraindik, baserri askotan egon litezkeela arropa zaharrak gordeta ere adierazi du: «Hemen azaldu badira, beste batzuetan ere egon daitezke».

Baserriaren egitura

Laskibar familiak Gotzon Uriaren eskuetan utzi du guztia, «ez dute ia ezer jakin nahi», nabarmendu du. Uriari pena ematen dio guztia hondatzen uzteak,



Goikoetxea baserriko paretetan familiaren ikasketa tituluak zintzilik daude. **E.MAIZ**

Jantziak urteetan gorde dituen kutxa. Beheran, Gotzon Uriak, Goikoetxea baserriko oinordekoetako bat. **E.MAIZ**



baina baserri handia dela, eta diru asko behar dela guztia behar bezala mantentzeko dio.

Prietoren bidez, baserriaren egitura aztertzeraz ere joanak dira Goikoetxeara, eta egitura aldetik ere «altxorra» dagoela esan diote. Baserria bi zatitan egina da. Dolarearen garai bateko estruktura ere oraindik osorik mantentzen da, baina «urte gutxi barru goitik behera doa hau», azpimarratzen du. Aldundia kasu honetan ere azterketa lanak egiten ari dela aurreratu du, eta egurrak aztertzen ari direla baserria noizkoa den jakiteko.

Baserri askotan ibilia dela kontatu du Uriak, eta bereak, «guzti honek, lehen zer edo zer bazela erakusten du», onartu du. Laskibar abizena bertan mantenduz, 1.500. urte ingurutik, hamahiru belaunaldi hazten ikusi ditu Goikoetxea baserriak. Orain, guzti honekin, Goikoetxea baserriaren historia borobiltzea gustatuko litzaioke Gotzon Uriari.



Erramu hostoen artean ondo gordeak

E. Maiz

Elena Tuduri tolosarrak 1920. urtean idatzi zuen, unibertsitateko ikasketen amaierako lanerako. Ia ehun urtez gordeta egon da lan hori, Emilio Latorre Zubiri bilobak, 2017an edizio eta argitalpen lanak egin zituen arte. Ehun urte geroago, iazko udan, Tuduriren argazki kamerak bide bera egin zuen Albizturko Goikoetxeara. Kasu honetan, ordea, alboan izan ditu Emilio Latorre biloba, Mikel Prieto historia-laria eta ikertzailea, eta Ane Albisu jantzien ikertzailea. Guztiak elkartu ziren Goikoetxea baserriko egongelan, pianoarekin, eta baita aurkikuntza izan diren emakume baserritarren artean ere.

Ane Albisuk 40 bat urte daramatza jantzien ikerketan eta beste hainbat ikerketen artean festarako erabiltzen diren jantziei arreta berezia eskaini dio. Orain dela 15 urte horri buruzko liburua argitaratu zuen, eta orain doktore tesia egiten ari da. Bere ikerketa lanean, aipatu du behin baino gehiagotan topo egin zuela Elena Tuduriren izenarekin, baina inondik inora ez zuela aurkitzen bere liburutik. Ezin aurkitu, ez baitzen liburu bat, baizik eta ikasturte amaierako tesi lana egin zuen Elena Tudurik, eta ez zen argitaratua izan.

Ane Albisuk kasualitatez Elena Tuduriren senitar-teko batekin topo egin zuela kontatu du: «Horrek bi-deratu ninduen Emiliorengana -Latorre-, eta Emiliok zuen bere amonaren izkribu originala». Gerora, Ma-drilen gordeta duten beste ale bat ere ikusi ahal izan du. «Elena baino askoz beranduago jaioa naiz, eta horri buruzko landa lanik ez zegoen eginda». «Egini-ko ikerketekin ondorio batzuetara iritsi nintzen, eta Elenaren liburua irakurri nuenean, ikusi nuen berak



ondorio horiexek idatzita zituela», azpimarratzen du Albisuk, eta «berak aztertuta zituen, bera egon bai-tzen jende horrekin. Nik, ordea, ez neuzkan, eta alde batetik eta bestetik atera behar izan nituen aipaturi-ko ondorioak». Pertsonalki, «nire lanaren oinarri bat eta bide onetik nindoala frogatzea izan da», dio.

Urtetako lanaren emaitza, egina zegoen landa lan batekin frogatu ahal izan du Albisuk, eta euskal gi-zartearentzat Elena Tuduriren lana «ekarpen handi-tzat» du. «Landa lana delako. Gure eskualdeko duela 100 urteko jantziei buruzko landa lan bat, eta batik bat, horrelakorik ez dagoelako; eta are gehiago, emakume batek egindako lana delako».

«Gizon batek egin izan balu ziur asko argitaratuta egongo lirake», zehaztu du. Elena Tuduri Eusko Ikaskuntzan sartua egon zen, eta emakume «oso au-rrerakoia» izan zen. «Garai hartan analfabeto asko zegoen, eta emakume honek unibertsitateko ikaske-tak egiteko aukera izan zuen», gaineratzen du Albi-



Emilio Latorre, Ane Albisu eta Mikel Prieto, Elena Tuduri argazki kamerarekin batera, Albizturko Goikoetxea baserriko egongela. **GOTZON URIA**

suk. Ez irakasle izateko, baizik eta irakasleei erakusteko ikasketak egin zituen.

Ehun urte egin behar da atzera, eta Tuduri, bere ikerketa egiteko argazki kamera hartu eta baserriz baserri ibili zen emakumea izan zen. «Meritu handia» dauka dio Albisuk, eta ez horrek bakarrik, baita «hortik atera zituen emaitzak» ere. Tolosaldean, Goierri eta Bizkaiko Arratian ibili zen Tuduri tolosarra. Aitzindarietako bat izan zen, Visitacion Viñesekin batera.

«Niretzat Elena Tuduri gure jantzien publikazioen egoera honetan oso-oso garrantzitsua da», nabarmentzen du Albisuk: «Ikerketa lan oso ona izan zen».

Prieto, giltzarri

Mikel Prieto historialaria izan da guztiaren lotura edota zubi-lana egin duena. Albizturren ikerketa lan handiak egiten ari da, eta bazuen, Emilio Latorrek hiru urte atzera egin eta argitaratu zuen liburuaren

berri. Nola ez, bere ikerketa lanetarako Prieto izana da Goikoetxea baserrian, eta egongela zela, eta pianoa ikustean, Tuduriren liburuaz oroitu zen, eta bertan ikusiak zituen argazki batzuez. «Elenaren liburuan argazki pila bat daude, baina aurkitu egin zuen tokia, eta oso hunkigarria izan zen», kontatu du Albisuk.

Ostean, Gotzon Uriak, arropa batzuk aurkitu zituela esan zioten. «Arropa horien artean, argazki horietan ateratzen zen soinekoa zegoen», gehitzen du. Albisuk Tuduriren liburuaz lerroz lerro eta argazkiz argazki mamitua du. «Mikelek esan zidanean existitzen dela toki hori eta soineko hori izugarria izan zen; ezin nuen sinetsi, oso-oso hunkigarria izan zen».

Hitzordua egin zuten Goikoetxea baserrira joateko, eta «soinekoa atera zidatenean... ezin da deskribatu». Beste edozeinentzat, agian, trapu bat baino ez zela izango adierazi du, baina «Elena Tuduri oso-oso garrantzitsua da niretzat. Bestalde, honelako aurkikuntza bat egitea handia izan da». «160 urteko soinekoak ez dira hain erraz aurkitzen».

Bi aurkikuntza

«Soinekoak bakarrik aurkituta jada ikaragarritzko aurkikuntza izango litzateke, baina gainera, soineko horiek liburu bateko argazki batean, berak esaten duen moduan baserritar aberatsak nola janzten ziren ilustratzeko egoteak balio erantsia esleitzen die», argitzen du.

Orain urtebete izan zen aurkikuntza, eta harrez gero elkarrekin egin duten bideak lotu ditu Albisu, Prieto eta Latorre: «Oso polita izan da». Prieto iker-tzailea, Latorre Tuduriren biloba eta Albisu, duela sei urtetik, Tuduriren lanaren jarraitzaile dira. «Hiruron artekoa bikaina izan da», dio, eta hiruren artean *Re-encuentro con Elena Tuduri en la casa Goikoetxea cien años después* artikulua idatzi dute.

Era berean, momentu hori ere argazki bidez jaso nahi izan dute, eta hirurek, Albizturko Goikoetxea baserriko pianoaren alboan, eta Tuduriren argazki kamera pianoaren gainean jarrita atera zuten argazkia. Horrez gain, Iñigo Royok Tudurik ateratako jan-

tziei ere argazkiak atera dizkie. Tudurik baserriko emakumea modelo lanetan jarri zuen modura, hauek, Elena Tuduriren birbiloba den Maria Latorre jarri dute modelo moduan.

Arroparen garrantzia

Bai hemen eta baita kanpoan ere, maiz, arropari lotu-takoari ez zaiola «behar duen arreta ematen», dio Albisuk. «Badirudi askorentzat arroparena azaleko kontua dela». «Bai sozialki, psikologikoki, baita kulturalki ere arropari dagokionak pisu handi-handia du, eta ez zaio ematen normalean behar duen garrantzia», azpimarratu du. «Guri iruditzen zaigu balioan jarri behar dela», gaineratu du. «Arropa horiek gugainaino iritsi izana» eta «Goikoetxean bizi izan direnek gorde izana, Gotzonek esan zuen moduan, oso ondo, erramu hostoen artean gordeta».

Prietok aztertu du Goikoetxea baserria, eta hainbeste urtean «bizirik eta familia beraren eskuetan iraun duen etxea, etxe moduan eredugarria izan da», dio Albisuk. Nabarmendu du, Prietok Albizturren egin duen lanarekin balioan jarri dituela Albiztur eta bertako etxeak.

Orain, hiruren artean idatzi duten artikuluekin, etxe bat, familia bat eta familia horrek mantendu duena jarri nahi izan dute balioan; «ez ditu bakarrik mantendu soinekoak, mantendu du liburutegi bat, mantendu ditu artxiboak... eta gure kulturarako eta gure herrirako egin duen ekarpena», kontatu du Albisuk. Bestetik, Elena Tuduriren ekarpena legoke, eta «momentu honetan, soineko horrek elkartzen ditu biak», dio. Bi ekarpenak soineko hori aurkitu izanak lotzen dituela argitu du. Bi argazki atera zituen Tudurik. Baina soineko gehiago dira aurkitu direnak.

Gero etorri da Albisuren lana. Irakurketa egin du Tudurik lana egiteko moduz. Duela 100 urte idatzitako lanari, ordea, liburu forma Latorrek eman zion: «Emilioren lana bikaina izan da». Liburuaren irakurketaz gain, Elena Tudurik Goikoetxean ere zer egin zuen aztertu du. «Hori da galdera. Zergatik joan zen horra? Eta zer egin zuen? Eta zergatik aukeratu zuen soineko hau? Nire lana hor egon da». Soinekoa, emakumea, garaia,... irakurketa bat egitea egokitu zaio.

Soinekoak eta argazkiak ikusita, eta Prietoren la-



nari esker eskuartean ditugun paper eta beste elementu batzuk iradokitzen dutenez Goikoetxeak: «Janztekoari garrantzi handia ematen zioten eta aurkitutako soinekoak oso-oso aberatsak dira; oiha-laren aldetik eta josteko moduaren aldetik».

Nekazarien janzteko modua aztertu nahi izan zuen Tudurik. «Hortik modako jantzieta ertzadarraren antzeko zerbait egon daitekeela esan dezakegu, eta Elenak berak esaten zuen bezala, baserrietan eta herrietan bizi ziren emakume aberatsek moda jarraitzen zuten. Nekazariak ez ziren janzten beti estilo berean. Elenak hori zioen, eta argazki horretan hori irudikatu nahi izan zuen».

Normala den moduan, ez dira gorde egunerokoan janzten zituzten arropak. «Gordetzen dena dotoreena da», «aurkitu direnak zetazkoak dira, baina argi dago artilezko soinekoak edo kotoizkoak ere edukiko zituztela». Oihalak izugarri berrerrabiltzen zirela



Bere ikerketa lanerako atera
zuen argazkietako bat, Goikoe-
txea baserriko pianoarekin.
ELENA TUDURI

ekarri du gogora. «Elenak orri bat eskaini zienerako jakitun zen etxe gehiagotan ere horrelako jantziak izango zirela; kontua da ez direla gorde edo ez zaizkigula iritsi». Lehen arropak eta oihalek balio handia zutela esan du, eta «oso ondo aprobetxatzen zituztela».

Ez da Albizturkoaren kasua, baina bilduma askotan gonak ez direla agertzen kontatu du: «Gonetan, tela asko zegoen eta gauza asko egiten ziren». Albizturko aurkikuntzan gonak ere egoteak balioa eranstean diola nabarmendu du.

Argazkietako bi trajeak baino gehiago dira kutxan gordeta agertu direnak: «XIX. mendeko garai ezberdinetakoak dira, hiru edo lau bat hemeretzigarren mende erdialdekoak dira; ez dira bakarrik garai hartakoak, eta ondorengo urteetakoak ere badaude».

Jantziez gain, kapelak, mantuak, poltsak, abanikoak,... osagai ezberdinak agertu dira. «Elenak



Maria Latorre, Elena Tuduriren
birbiloba Goikoetxea baserrian
agertu diren jantziekin.
IÑIGO ROYO



Elena Tudurik Goikoetxea baserriko
emakumeari atera zion argazkia
duela 100 urte. **ELENA TUDURI**



mantuei garrantzia handia eman zien, eta horiek ere agertu dira», esan du Albisuk, baita «haria egitekoa, eta josteko mila gauza». Aurkitutako material guztia dela eta, Albisuk garbi du etxe horretan josten zela. Jantzekoez gain, etxerako arropa ere ugari agertu da: «Oherako arropa oso ederra dago; ohegainekoak, oherako gortinak, eta ez edozein moduko gortinak gainera».

Idatzi duten artikulurako balorazio lana egin du, baina oraindik ere ikerketarekin aurrera jarraituko du Albisuk. Horrez gain hitzaldiren bat ematea aurreikusia dute.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA



XABIER TELLERIA
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Iñaki Larrañaga, maisua eta bidelagun

Nire aurreko artikuluan zeharka aipatutako kontu zaharrekin nator berriz ere. Iñaki Larrañaga soziolinguistaren heriotzak eman dit aitzakia oraingoan. Gure inguruan soziolinguistika aplikatuaren lehen adreiluak jarri zituen apaiz lazkaotarra. Aspaldiko kontuak izaki eta bere izaera erreserbatua tarteko, izen honek ez die agian gauza handirik esango irakurle gehienei. Baina gaur egun Tolosak duen euskararen ezagutza eta erabileran zerikusi handia izan zuen laguna genuen Iñaki.

1980. hamarkada erdi aldera ezagutu genuen Tolosako udaletxean; Udal Euskaltegia martxan zen ordurako, Mirentxu Etxeberria alkate, Iñaki Larrañaga Euskara Batzordearen aholkulari aritu zenean; ondo gogoan dugun Inaxio Agirre zen batzorde hartako lehendakari; EAJ alkatetzan, ezker abertzaleko zinegotzia batzorde baten presidente. Beste garai batzuetako kontuak gurean. Euskararen egoerarekin sentsibilitate berezia zuten biek ala biek. Asotelehen arratsaldeetan ordu luzez biltzen zen batzorde hori, egoera kezagarri hura iraultzeko moduez eta balizko urratsez hausnartzeko. Lehen kan-

Lehen kanpaina
hietan
aholkulari eta
gidari izan zen
Iñaki Larrañaga
jakintsua

paina hietan aholkulari eta gidari izan zen Iñaki Larrañaga jakintsua. Eta metodo zientifikoa aplikatuz, baita ondoren burutu izan diren euskararen erabileraren neurketetan ere.


Gure hizkuntzaren historian urtealdi honek anekdotaren kategoria suposa dezake. Baina urte gutxi izan arren, eman diren aldaketaz jabetzeak merezi du. Gertaera pare bat orduko egoera ilustratzeko.

Udalak etxeetara bidaltzen zituen ordainagiriak (ura, argia, etab.) gaztelera hutsean idatzita ateratzen ziren. Euskara Batzordeak proposatuta, kanpaina bat burutu zuen Euskara Zerbitzuak: agiri guztiak

euskara hutsean bidaliko zituen aurrerantzean, eta halakorik nahi ez zuenak eskaera egin beharko zion udalari, gaztelera jasotzen jarraitzeko. Eta izan zen erreaktziorik.

Aurreneko kasuan, herriko famili ondo abertzaleko patriarka joan ziztzaigun goiz batean udaletxera; euskara jatorraren zale izaki, batuak begietako mina ez ezik urdaileko bihotz

errea ere eragiten zion, nonbait eta erdaraz nahiago zuela esanez, hala bidaltzeko eskatu zigun. Gaur egun apenas geratuko den batuaren beharra eta onurak zailantzan jarriko dituenik. Aldaketaren seinale.



Iñaki Larrañagaren artxiboko irudia. **ATARIA**

Bigarren kasu bat ere badut gogoan, batere aber-
tzalea ez zen gizaseme harena. Euskaraz jakin ez
arren, bere abizen ondo euskaldu-
nen jabe izateaz harro; kontuak es-
katu zizkigun inoren baimenik gabe
aldatu zuelako udalak berari zuzen-
dutako agirien hizkuntza, kontura-
tu gabe seguruenik, gaztelera hu-
tsean bidaltzeko ere ez zuela inolako
baimenik emanda. Aurrekoak ez
bezala, jarrera honek badu jarrai-
tzailerik oraindik.

Bizi zen moduan,
diskrezio osoz joan
da Iñaki. Baina ez
oharkabea,
denontzat
behintzat

Bere ahots sakonaz, bere hizkera pausatuaz, bere
ikuskeraz, bere iritziak, bere gomendioak aletzen zi-
tuen udaletxe zaharreko gela ilun
hartan Iñaki Larrañagak. Eta ja-
rraibide horiek gero bidea egiten
zuten Tolosan bezala, inguruko
herrietan. Ondorioak begi bista-
koak dira urteetan aurrera goaze-
nontzat.

Bizi zen moduan, diskrezio osoz
joan da Iñaki. Baina ez oharkabea,
denontzat behintzat.

AGENDA

OHE ELASTIKOAK

SALTOKA

Ohe elastikoak izango dira Trianguloa plazan. Fitxa bat (euro bat), hiru fitxa (bi euro) eta zortzi fitxa (bost euro). As-telehen goizak doan izango dira herritar guztientzat. Gonbidapenak orduka emango dira, eta *Bibe.me* plataforman eskuratu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak gehienez hiru gonbidapen hartu ahal izango du ordu bakoitzeko. Irailaren 19a arte, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00ko ordutegian.

**Trianguloa plaza,
Tolosa.**



ASTEAZKENA UZTAILAK 28

AMASA-VILLABONA MANTENTZE GIMNASIA

09:30. Izen-ematerik gabe, herritar guztientzat irekia, ikastolan.

UR PARKEA

16:00. Arroan, gazte gunea: Slide eta Pailazo Txirrista. Malkar plazan, haurren gunea: Irristakorra, Piraten Txirrista, Txalupak eta Apar Festa.

TXAPELKETA

18:00. Eskuz binakako finala. Pilotakadek batzen gaituzte, Bear Zana frontoian.

TOLOSA MUSI TOLOSA

10:30. Mugi Tolosa, Zerkausiatik aterako dira.

OSTEGUNA UZTAILAK 29

AMASA-VILLABONA KONTZERTUA

19:00. Dupla taldearen *Folklore*. Gari Uriarte eta Beñat Oribe. Erreboteko plazan, baina euria eginez gero, Gurea antzokian.

TOLOSALDEA HITZALDIA

19:00. KzGuneke zuzeneko hitzaldia entretenimenduari buruz. *Doako filmen atariak*. Gaztelaniaz. Youtubeko Kzguneatic-en.

OSTIRALA UZTAILAK 30

ALTZO UDA GIRO

Arratsaldean. Loatzoko trikitilariak eta txaranga herrian zehar.

19:00. Ibil bedi musika taldearen kontzertua, eskolako estalpean.

AMASA-VILLABONA ZINEMA KALEAN

19:00. *Zikoinak* haur zinea, euskaraz. Amalur plazan, baina euria eginez gero, Gurea zinean.

IBARRA UDA KULTURALA

22:30. La Topadoraren kontzertua. Gonbidapenak Ibarako kultur etxean (943 67 03 99). Emeterio Arrese parkean.

LARRAUL ZINEA KALEAN

21:00. Zinema aire librean.



TOLOSA

KULTURA PLAZARA

19:00. Sonakay taldearen kontzertua, zezen plazan. Sarrerak www.kulturaplazara.eus atarian salgai.



LARUNBATA
UZTAILAK 31

ALTZO

UDA GIRO

12:30. Goiz eresia herriko txistulariekin.

12:30. Arte dantza taldea eta herriko musikariak, eskolako estalpean.

19:00. Bertso jaialdia, eskolako estalpean. Bertsolariak: Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal. Oihana Iguaran, Joanes Ilarregi, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Manu Olano.

AMASA-VILLABONA

ERREBOTE PARTIDA

11:30. 92. Villabona eta Hazparne Nagusi mailako Errebote partida. Pilotakadek batzen gaituzte II. Erreboteko plazan.

KONTZERTUA

13:00. Eresargi Txiki abesbatza. Gure antzokian.

PENTATLOIA

18:00. Kepa Peñagarikano eta Andoni Iruretagoienea *Izeta*; Kar-

BISITA
GIDATUA



ARGI EZKUTUAREN BILA

lazko esperientziari jarraipena emanez, Amezketako Udalak herria ezagutzera emateko bisita gidatuak antolatu ditu; irailaren 12ra bitarte luzatuko dira. *Argi ezkutuaren bila* izenpean, herritarra den Agurtzane Garmendiak egingo ditu bisita gidatuak.

Bost geldiuenerako bisita gidatua da, eta ordu eta erdiko iraupenean egiteko modukoa. San Bartolome elizaren atzeko aparkalekua da bisitarien topagune eta abiapuntua, eta obretan egon den eta udalak guztiz berri duen lerabizkar errota amaituko dute bisita. Errota bera bisitatuko dute, eta bisita gidatuetarako errota martxan jarri nahi dutela esan dute udaletik.

Aldez aurretik erreserba egitea ezinbestekoa izango da. 657 370 156 telefono zenbakira deituz edo WhatsApp mezua bidalita. Ohiko sarrera hiru eurokoa izango da, eta murriztua den kasuan, 1,5 euro ordaindu beharko da. Lau urtetik beherako haurrentzat doan izango da. Eta gehienez ere 20 pertsonako taldeak osatuko dituzte.

Irailaren 12ra arte. Larunbata (18:00) eta igandea (12:00). Amezketara.



mele Gisasola *Zelai III*, Uxue Ansoñegi, Lucia Orbe eta Garazi Arruti. Egin beharreko lana: hamabost jasoaldi bolari; giza proban bi plaza; aizkoran bi egur; txingan lau plaza eta korrika hamabost buelta. Maiatzaren Lehena plazan.

LARRAUL

UDAKO EKINTZA KULTURALAK

11:00. Ume jolasak.

19:30. Mugan taldearen kontzertua.

TOLOSA

ITAIA. UDAKO EGITARAUA

12:00. Hitzaldia. Aniztasunaz eta identitate zapalduaz.

14:00. Bazkaria. 8 euro, izenarematetako idatziz 657 25 45 80 zenbakira.

16:00. Pintxada Bassagain Soinu Sistema. Bitartean, tonbola. Itaiak antolatuta, Izaskun auzoko Sputnik plazan.

KULTURA PLAZARA

19:00. Olatz Salvador eta Idoia-ren kontzertua izango da zezen

plazan. Sarrerak www.kulturaplazara.eus atarian salgai.

IGANDEA ABUZTUAK 1

ALTZO

UDA GIRO

19:00. *Kale gorrian* kale antzerkia, Barsanti taldearen eskutik, herriko plazan.

LARRAUL

UDAKO EKINTZA KULTURALAK

11:00. Pilota partidak.

12:30. Sagardo dastaketa gidatua. Aurrez izena eman beharko da 634 289 327 telefono zenbakian.

18:30. Bertsolariak.

TOLOSA

KULTURA PLAZARA

19:00. Haurrentzat *Kiliklon: porrusalda erromeria*. San Esteban auzoan eskainiko dute. Sarrerak www.kulturaplazara.eus webgu-

nean eskuratu daitezke dagoneko.

ASTELEHENA ABUZTUAK 2

LARRAUL

UDAKO EKINTZA KULTURALAK

10:00. Mendi irteera.

19:00. *Mikra* akrobazia antzez-lana.

ASTEARTEA ABUZTUAK 3

LARRAUL

SAN ESTEBAN EGUNA

11:00. Meza.

12:00. Jolasak.

19:00. *Arineketan* ikuskizuna.

ASTEAZKENA ABUZTUAK 4

TOLOSA

KONTZERTUA

20:00. Giulia Biagettiren organo kontzertua, Santa Maria parrokian.

LARUNBATA

ABUZTUAK 7

TOLOSA

KULTURA PLAZARA

20:00. Kalakan taldearen kontzertua, zezen plazan. Sarrerak www.kulturaplazara.eus webgunean eskuratu daitezke.

OSTIRALA

ABUZTUAK 13

ADUNA

ADUNAKO NAHIAK 2021

22:30. Antton Telleriaren *Nekatuak* bakarrizketa. Herriko plazan.

ZIZURKIL

KULTUR ASTEBURUA

16:00-19:00. Puzgarriak Pedro Maria Otaño plazan.

19:00. *Frontona* antzezlan, In-txaur frontoian.



LARUNBATA

ABUZTUAK 14

ADUNA

ADUNAKO NAHIAK 2021

19:30. Frontoian, Alurren *Gattiu* dantza ikuskizuna.

**BISITA
GIDATUAK**



TOLOSAKO BISITA GIDATUAK

Astelehenetik asteazkenera

10:00. Tolosako Alde Zaharra.

11:30. Tolosako 3 tenpluak, Andre Mariako ganga barne.

Osteguna eta ostirala

10:00. Tolosako Alde Zaharra.

11:30. Tolosako 3 tenpluak, Andre Mariako ganga barne.

16:00. Andre Maria parrokoiko ganga.

17:30. Tolosako Alde Zaharra.

Larunbata

10:00. Tolosako Azoka.

11:30. Tolosako 3 tenpluak, Andre Mariako ganga barne.

16:00. Andre Maria parrokoiko ganga.

17:30. Tolosako Alde Zaharra.

Erreserba egiteko Tolosaldea Tour Turismo bulegoan, 943 69 74 13 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.eus helbide elektronikoan. Bisiten kostu arrunta hiru eurokoa da, eta murriztua, 1,5 euro.



22:30. Futbol Aretoan. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Aitor Sarriegi, Oihana Iguaran eta Unai Agirre bertsolariak ariko dira bat-bateko lanari ekin ez. Gai jartzaile lanetan Imanol Artola *felix* ariko da.

ZIZURKIL

KULTUR ASTEBURUA

09:30. *Konkis Txiki* sei urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat erronka eta proba dibertigarriak herrigunean zehar.

11:00. Sei urtetik beherakoentzat jolasak Pedro Maria Otaño plazan.

18:00. *Mikra* zirko emanaldia eskainiko dute Pedro Maria Otaño plazan.

22:30. Julen Alonso eta Oinkariaren eskutik *Sutan Dantzari* ikuskitzuna Intxaur frontoian. Aforo mugengatik, gonbidapenak beharko dira *Sutan Dantzari* ikuskitzunerako. Iriarte eta Plaza Etxeberri jatetxeetan egongo dira eskuragai.

IGANDEA ABUZTUAK 15

ADUNA

ADUNAKO NAHIAK 2021

09:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Axeri-dantza.

22:30. Futbol Aretoan, AMAK laukotearen musika emanaldia.

ZIZURKIL

KULTUR ASTEBURUA

11:00. Haurren basoa ekimenaren eskutik, tailerrak eta jolasak.

12:00. Herri kirol saioa:

Aizkoran, Jon Irazu-Txomin Amondarain eta Unai Otaegi-Joseba Otaegi.

Harri jasotzen, Udane Ostolaza.

19:00. Bertso jaialdia Intxaur frontoian. Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal, Amaia Agirre, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Amets Arzallus. Gai jartzen, Igotz Alkorta. Aforo mugengatik, gon-

bidapenak beharko dira bertso jaialdirako. Iriarte eta Plaza Etxeberri jatetxeetan egongo dira eskuragai.

ASTELEHENA ABUZTUAK 16

TOLOSA

ODOL EMATEA

16:30. Aurretik txanda hartzea beharrezkoa da, telefonoz, odol emaileen elkartearen: 900 303 404. Kultur etxeko Topagunean, lehen solairuan.

OSTIRALA ABUZTUAK 20

TOLOSA

KULTURA PLAZARA

20:00. La Furia + Dupla taldeen kontzertua, zezen plazan. Sarre-rak www.kulturaplazara.eus web-



gunean eskuratu daitezke dagoe-neko.

LARUNBATA ABUZTUAK 21

IBARRA

UDA KULTURALA

19:00. Alurr dantza taldearen ikuskizuna, *Gattiu*. Gonbidapenak Ibarako kultur etxean (943 67 03 99). Emeterio Arrese parkean eskainiko dute emanaldia.

ASTELEHENA ABUZTUAK 23

IBARRA

UDA KULTURALA

20:00. Puro Relajo taldearen kontzertua. Gonbidapenak Ibarako kultur etxean (943 67 03 99). Emeterio Arrese parkean.

ASTEARTEA ABUZTUAK 24

IBARRA

SAN BARTOLOME EGUNA

22:00. Bulego taldearen kontzertua. Gonbidapenak Ibarako kultur etxean (943 67 03 99). Emeterio Arrese parkean.

LARRAUL

SAN BARTOLOME EGUNA

11:00. Meza.

19:00. Trikitilariak.

LARUNBATA ABUZTUAK 28

TOLOSA

KULTURA PLAZARA

20:00. Belako taldearen kontzertua, zezen plazan. Sarrerak www.kulturaplazara.eus webgunean eskuratu daitezke.

IGANDEA ABUZTUAK 29

TOLOSA

KULTURA PLAZARA

12:00. Kantu kolorearen emanaldia, zezen plazan. Sarrerak www.kulturaplazara.eus webgunean eskuratu daitezke dagoe-neko.

19:00. Maite Larbururen kontzertua izango da, Aldaban. Kultura Plazara ekimenaren barruan izanik, sarrerak www.kulturaplazara.eus webgunean eskuratu daitezke dagoeneko.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak uneen uneko aldaketak sortu ditzake.



JULEN TELLERIA
HIZTUNA

Portzierto

Euskaltzaindiak 'portzierto' onartu du bere hiztegia gizentzen duten zientoka milaka hitzen artean. 'Portzierto'. Batzuk eskuak buru gainera eraman dituzte, Obelix gose-tua gerturatzen ikusi duen soldadu erromatarraren aurpegia jarritz, hori Cervantesen gazteleratik eratorria dela eta gure *linguae primitiae*an nola ametituko dugun galdezka. Portzierto, ni lehendabizikoz oraintxe

jabetu naiz *kastellanotik* datorrela; gure etxeak ez daukan tximiniako sutondoaren epeletan, betidanik entzun izan dudalako 'portzierto', euskara jatorrean. Portzierto, gaur hemen irakurritakoarekin ez bedi inor asalda, mese-dez, hau oso urruti baitago edozein teoria filologikotatik; ikuspegi xume eta pertsonal bat besterik ez du izan nahi.

Euskararen zuzentasun-ez zuzentasun dikotomiaren, edo, hobeto esanda, egokiera-ez egokiera zalantza eternalaren aurrean, beti egin izan baitut nik ariketa berbera: nola esango zukeen hau gure amona Mariak? Sarri ixten ditut begiak (beno, normalean irekita ditudala egiten dut hau, baina horrela esanda epika gehiago dauka) eta bidaiatzen dut Belauntzako gure baserriko sukaldeko epeletara. Han ere ez zen tximiniarik. Baina egoten zen gure amona zena, eta hark euskaraz baizik ez zekien. Egiazki, erdaraz ere moldatzen zen, behar zuen guztietan. Halabeharrak erakutsita. Beste aldera, halabeharrak gaztelania bezainbat euskara erakutsi izan balu, bizarra moztuko nuke... Baina, tira, amona Mariak espezial egiten zuela euskaraz, *despazio* eta edonork ulertzeko moduan, batuarik jaso ez bazuen ere. Portzierto, ez zen ez hizkuntzalari, ez irakasle, ezta bertsolaria ere. Baserritarra zen, lurretik jaso zuen euskara. Horregatik, Damoklesen ezpata nire lepo ondoan nabaritzen dudan aldiro bidaiatzen dut amonaren ondora, eta imajinatzen hark zer eta nola esango zukeen. Portzierto, pila bat gustatzen zait 'portzierto'. Amonari ere entzun diot, eta.

Portzierto, hau izango da hemen nire azkena. Iritzi asko izaten jarraitzen dut, kolore, forma eta tamaina anitzekoa, baina, batzuetan niretzat bakarrik gordetzea ere gauza ederra dela ikasi dut. Beraz, hemendik aurrera, nire berri jakin nahi baduzu, esazu hirutan 'portzierto' eta agertuko naiz hegan. Eta hartuko dugu elkarrekin hemengo nire lehendabiziko iritzian agindu nizun zuri-toa. Oraindik ez baitizut atera. Portzierto.

**Damoklesen
ezpata nire
lepo ondoan
nabaritzen
dudan aldiro
bidaiatzen dut
amonaren
ondora, eta
imajinatzen
hark zer eta
nola esango
zukeen**



**IRATI
HARTSUAGA**
ITZULTZAILEA

Ez dut autoa gehiegi erabiltzen. Normalean baserrira joateko edo, tarteka, arratsalde-pasa joateko kostaldera, uda partean. Agian horrexegatik, gure autoko irratiak urteak zeramatzan hondatuta. Eta pasa den asteburuan Donostiarantz abiatu nintzenean aparatu berria jarrita, asfaltiko partez Berri Txarrak-en *Eskuak/Ukabilak* diskoko kantuen hitzak eztarrian, bi gauzaz jabetu nintzen: bata, gaur entzuten dudak musikak, ona izanik ere, ez didala sortzen gaztaroko kantuen zirrarak, eta bestea, ahaztuta neukala dutxan baino gehiago autoan kantatzea gustatzen zaidala.

Libre

Atzera begira jarrita, ikusten dut urte haiek zein garrantzitsuak izan ziren gaur naizen hau eraikitze-ko prozesuan. Autonomo izaten ikastea prozesu bat baita: lehenbizi abantailez eta askatasunaz gozatu genuen, eta ondoren independentzia horrek berekin dakartzan erantzukizunez jabetu ginen. Baina gazte ginen, libre ginen eta ondo pasatzen genuen.

Horrexegatik, udako egunotan tristura handia sentitzen dut gaur egun eraikuntza prozesu horretan dauden gazteei begira. Badakit pandemiak denoi eragin digula neurri berean, baina garai desberdinetan harrapatu gaituenez gero, ondorioak desberdinak dira ezinbestean. Eta autoan nostalgia murgildurik nindoala, gazte horiek zetozki-

Niretzat, leihoa jaitsita eta haizea sentituz kantatzeak badu halako usain erromantiko bat. Unibertsitateko garaiak dakarzkit gogora, orduan ibiltzen bainuen gehien autoa, Gasteizera joan-etorrian.

Niretzat, leihoa jaitsita eta haizea sentituz kantatzeak badu halako usain erromantiko bat. Unibertsitateko garaiak dakarzkit gogora, orduan ibiltzen bainuen gehien autoa, Gasteizera joan-etorrian. Baina gazteagotakoak ere bai, lagunek gidabaimena atera berritan inguruko herrietako festetara joaten ginenekoak, edo kuadrillan eginiko lehen egun-pasa eta oporretakoak.

dan burura, nola eskatzen diegun oraindik barneratzen ari diren erantzukizun horrekin jokatzeko, nahiz eta ia ez duten aukerarik izan autonomiak ematen dizkien abantailez eta askatasunaz gozatzeko. Eta hala behar du, jakina. Baina hemendik hogeitaz urtera autoan gaztaroko kantuek entzuten dituztenean, zein oroitzapen etorriko zaizkie gogora?




HARITZ MUJIK
HARITUZ-EKO KIDEA

Festa edota ez festa

Doinua Ezkondu eta ezkongai

laz gaitzari iheska;
musukoa, gela, testa...
Txertoa zerura eska.
Aurtengo udan nahiz ta jarraitu
intzidentziaz galdezka...
Festa edota ez festa
baldin bada gure kezka
hain seinale txarra ezta.





IGOR ESTANKONA
POETA

Txertoaren albo-ondorioak


Alfredo Zitarrosa entzunez
sin saber por qué
no te podrás ir
yo te quiero despedir
badoa uda eta uda
hasi baino ez da egin.

Pfizer, Moderna, Janssen
petaloak ur gainean doaz
oraindik heldu ez den mahatsaren
ardoaz, diadema bat Maulerentzat.

Zer liburu irakurriko ditu bizitzan?
Zein whiskey gustatuko zaio?
Gu egon gara itsu: bera beti egon da munduan
itzala dagoen bezala hontzaren argian.

Eta orain bikote maiteminduek
ikusten gaituzte kalean eta beraengan pizten da
poema honek piztu ez dezakeen
irudipen bat:
ume bat jaio dela
autobus elektrikoen garaian Tolosan.

Zeintzuk izango dira bere zaldiak gauean?
Non aurkituko du ur bat oso urdina?
Gu egon gara itsu: bera beti egon da itsasertzean
eta ama eta ni ginen irla deika.



Atlantic reef corals. Smith, F. G. Walton. **WIKIPEDIA COMMONS**



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

ASTEAZKENA

Antzeko giroa. Goizean berriz ere hodei-geruza trinkoagoa izango da eta han-hemenka euri langar pixka bat izango da. Eguerditik aurrera hodeiak saretuago agertuko dira eta giro argixeagoa izango da. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 22-23 gradutan joaz goia.

OSTEGUNA

Motel antzeko giroarekin jarraituko dugu. Egun osoan hodeiak nagusituko diren arren, hauek trinkoagoak izango dira goizean eta azken orduetan non tarteka euri langar pixka bat utziko duten han-hemenka. Egunekeo erdiko orduetan giro argiagoa izango da. Haizeak ipar-mendebaldetik jotzen jarraituko du eta tenperatura apenas mugituko da, 22-23 gradutan joaz goia.

OSTIRALA

Altxa ezinik ibiliko da eguraldia. Egunaren lehen zatian eta arratsaldearen erdi arte, zeruan hodei asko agertuko da eta tarteka euri txiki modura, zaparradaren bat edo beste izango da. Arratsalde erditik aurrera, atertzeko joera hartuko du, baina hala ere, hodei geruzak trinkoagoa izaten jarraituko du. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura beste pixka bat jaitsiko da, 20-22 gradutan joaz goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK!!!

Zorionak, Oskar! Ibilian ibilian etxerako bidean.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez*

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus

San Esteban 20 Tolosa

FARMAZIAK

UZTAILAK 28, ASTEAZKENA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korrore kalea, 20. 943 67 60 13.

UZTAILAK 29, OSTEGUNA
TOLOSA

Egunekoa. Jesus M. Etxebeste Elozegi.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

UZTAILAK 30, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Edurne Mugika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

UZTAILAK 31, LARUNBATA
TOLOSA



Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.
943 67 51 18.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

ataria

www.ataria.eus • 107.6 fm

Abuztuan ere jarraitu eskualdeko
albisteak ataria.eus webgunean!





Udako argazki lehiaketa



'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:

logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiazko Bailara jatetxean

iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Goiatz. - 943681234

ataria.eur-eko erabiltzaileen saria



Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

cosmenticalixone.com
Ibaiondo industrigunea, 11. Aduna. - 943691280

atarikide-en saria